

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak “1212/1512/2012 historiaren agertoki bizia” erakusketa inauguratu du Nafarroako Liburutegian

*Nafarroako Gobernuak antolatuta, erakusketa Foru Komunitateko hamar udalerritan jarriko da ikusgai, eta ondoren Nafarroako Zentroa edo Etxea duten Espainiako hirietan ikus ahal izango da*

Miércoles, 28 de marzo de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Angulok, Nafarroako Gobernuak "[1212/1512/2012 historiaren agertoki bizia](#)" erakusketa inauguratu du gaur Nafarroako Liburutegian. Ibiltaria den erakusketa Nafarroako hamar udalerritan ikusi ahal izango da eta, ondoren, Nafarroako Zentroa edo Etxea duten Espainiako hirietan ere ikusiko da: Zaragoza, Gasteiz, Madril, Bilbo, Valladolid, Logroño, Barkaldo, Santander, Burgos, Sevilla eta Bartzelonan.



Tolosako Naben Batailako beiratea

Bilduma honetan, Komunitatearen aztarna historikoa osatzen duten Nafarroako monumentuen multzo nagusia islatzen da. Tauletako batean irakur daitekeenez, "Monumentu artistikoak historiaren adierazle bistakoenak dira eta belaunaldiek lurralde honetan utzitako beren lan, sinesmen eta sentsibilitatearen aztarna nabariena". Erakusketa ondorengo gertaera historikoei buruzko informazioa jasotzen duten taulez osatzen da: Baskoiak, Musak, Leyre, Aralar, Tuter, Orreaga-Roncesvalles, Gares, Estella-Lizarra, Artaxona, Uxue, Fiteroko Monasterioa, Erriberri, Erreinuko Hiriburua, Bertiz, Noingo Ubidea eta Xabier. Bideo batek, aldi berean, pantaila batean monumentu historiko horiei eta haien historiari buruzko dokumental bat proiektatzen du.

Gainera, erakusketa honen osagarri, Nafarroako Liburutegi Orokorrek erakusgai jarri du "Memoriaren memoria, 1212-1912: mendeurren baten oroitzapenak" izena duen eta apirilaren amaieran osorik eskainiko den erakusketaren aurrerapen txiki bat, Tolosako nabes batailaren VII. mendeurrena dela eta, 1912an antolatu ziren ekitaldiei lotuta. Ospakizun haiei dokumentuak erreskatatuz, bi beira-arasa jarri dira liburuxkekin, artikuluekin, oroitzapenezko domina batekin edo orduko erakunde nafarrek gertaera historikoa ospatzeko antolatu zituzten ekitaldi programa ofizialekin.

Inauguraziora bertaratu direnek, gainera, 1912an filmatutako pelikula bat ikusi ahal izan dute, eta Alfonso XIII. erregearen bisita dela eta egin zena. Errege horrek Iruñea bisitatu zuen Mahastizaintzako Kongresu Nazionala bat egin zenean. Pelikulaz gain, Tolosako Naberen batailaren VII. Mendeurrena ospatzeko nekazaritzako makinariaren erakusketa bat ere ikusi ahal izan dute.

Erakusketak, azkenik, argitalpen berriak eskaintzen ditu haien edukia kontsultatzeko, eta baita turismoko materialak ere erakusketa horren edukien gainean etxean sakontzeko.

Ekitaldian izan dira: Kulturako, Turismoko, eta Erakunde Harremanetako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia; Nafarroako Etxeen Federazio Nazionaleko lehendakari Rosa M<sup>a</sup> Ibañez; Kultura eta Erakunde Harremanetako zuzendari orokor Ana Zabalegui eta Fátima Baigorri, eta Nafarroako Zentroetako zenbait lehendakari eta Foru Komunitateko alkateak ere.